

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2140

883/2024 EBAZPENA, apirilaren 22koa, Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Silvia Aránzazu Hernández León andrea Psikiatriako Zerbitzuko Gainbegirale kargutik kentzen den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Erakunde Sanitario Integratuan.

1359/2014 Ebazpenaren bidez, Silvia Aránzazu Hernández León andrea Psikiatriako Zerbitzuko Gainbegirale izendatu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Unibertsitate Ospitalean.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Gerentzia honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Silvia Aránzazu Hernández León andrea Psikiatriako Zerbitzuko Gainbegirale kargutik kentzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Erakunde Sanitario Integratuan, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2024ko apirilaren 30eko lanaldia amaitzean izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Arabako Erakunde Sanitario Integratuari ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 22a.

Arabako ESIko zuzendari-gerentea,
JOSÉ MARÍA PÉREZ RAMOS.